

## **KOMUNIKAZIO ETA GIZARTE PROIEKZIORAKO DEKANORDEAREN ERABAKIA, FAKULTATEAK SUSTATUTAKO HITZALDIAK, JARDUNALDIAK ETA UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO EKINTZETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO DENA**

Goi-mailako hezkuntza sistema txertatuta dagoen inguruneak gizartera gehiago hurbildu dadila eskatzen dio unibertsitateari. Unibertsitatearen parte-hartzea gizartean bide desberdinetatik gauzatu daiteke, besteak beste, jarduera akademikoak eta kultur jarduerak sustatu eta bultzatuta, modu horretara ezagutza zabaldu eta gizarteko beste kide batzuekin elkarlanean aritzeko. Gainera, unibertsitateak sustatu eta bultzatutako jarduera espezifikoko horiek lagungarri izan daitezke gizarteak unibertsitateaz daukan irudia hobetzeko, bai eta unibertsitateak ingurunearekin daukan harremanetarako bitarteko egoki ere.

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak, unibertsitate-erakundea den aldetik, indartu egin behar ditu gizartearekin daukan harremanak, gizarte horretan txertatzeko daukan gaitasunaren arabera izango baita bere arrakasta neurri handi batean. Izan ere, orain dela gutxi egin diren gure ikasketei buruzko autoebaluazio txostenetan jasotako proposamen batzuek horixe planteatu dute: areagotu egin behar ditugula gizarteko kideei zuzendutako zabalkunde jarduerak.

Beraz, aipatutako guztia kontuan hartuta, gure fakultateko Dekanotzak sustatu egin nahi ditu ezagutzaren zabaltzea eta ikasleen eta, oro har, unibertsitateko kideen parte-hartzea bultzatuko duten jarduerak, fakultateak gizartean daukan presentzia eta irudia hobetzen laguntzeko. Jarduerok fakultatean edo beste edozein tokitan egin ahal izango dira, baina fakultateko irakasleek sustatu behar dituzte, osorik edo zati batean.

Horregatik guztiagatik,

HONAKOA ERABAKI DUT

### ***1. artikulua.- Helburua eta aplikazio-eremua***

- 1- 2023ko ekitaldian laguntzak emateko deia egiten da, ***unibertsitateko kideen artean eta, oro har, gizartean ezagutza zabaltzen lagunduko duten jarduerak bultzatzeko.***
- 2- Diru-laguntzak, besteak beste, honako hauetarako eskatu ahal izango dira: hitzaldiak, mahai-inguruak eta biltzarrak antolatzeko; kultur irteerak eta enpresetara bisitak egiteko; irakasleak edo profesionalak gonbidatzeko hitzaldiak ematera; eta, oro har, interesgarritzat har daitezkeen gainerako jarduera guztietarako.
- 3- Laguntza hauek, lehenik eta behin, irekita daude irakasleei edo irakasle taldeei, ikasleei eta, ondoren, fakultateko sailei eta sail atalei.

## **2. artikulua.- Diru-kopurua eta bateragarritasuna**

- 1- 2024.urteanzazpimila(7.500)euroko diru-kopurua egongoda erabaki honen helburu diren laguntzetarako, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen aurrekontuen kontura.
- 2- Jarduera bakoitzerako hirurehun(300) euro emango da, gehienera, behar bezala justifikatu behar diren salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- 3- Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bera duten beste laguntza batzuekin.

## **3. artikulua. Eskariak egiteko era**

- 1- Deialdi honetako diru-laguntza jasotzen duten jarduerak 2024an egin behar dira.
- 2- Ahal delarik, bi epe egongo dira eskariak aurkezteko: lehenengoa urtarriletik uztaile bitartean egingo diren jardueretarako, eta eskariak urtarrilaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira; bigarrena, berriz, irailtik abendura bitartean egingo direnetarako, eta eskariak irailaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira.
- 3- Eskerak egingo dira Fakultateko webeko formularioa betetzearen bitartez.

## **4. artikulua.- Erabakia**

- 1- Komunikazio eta Gizarte proiektuak dekanordearen **erabaki bidez** emango dira diru-laguntzak, horretarako eratu den batzorde batek proposamena eginda. Hauek dira batzorde hori osatuko dutenak: fakultateko beste dekanorde bat eta bi irakasle.
- 2- Lehenengo epean bidalitako eskaerak otsailaren 2rako ebatziko dira, beranduenez; eta bigarrenean bidalitakoak Urriaren 2rako.

## **5. artikulua.- Laguntzak adjudikatzeko irizpideak**

Batzordeak irizpide hauei jarraituko die diru-laguntzak nortzuk jasoko dituzten erabakitzeko:

- a) eskatzailearen gaitasuna eta ahalmena jarduera antolatzeke
- b) jardueraren kalitatea eta bideragarritasuna
- e) eskatutako diru-laguntzaren xedea bat da torren proposatutako helburuekin
- d) jarduerak fakultatearen irudian izango dueneragina
- e) eskatzailearen parte-hartzea fakultateak antolatutako beste ekintza batzuetan (ateak zabaltzeko egunak, batzordeak...)
- f) Jarduera euskaraz izatea kontuan izango da.

ERANSKINA erantsi da. Bertan jaso dira, bananduta: Kultura Jardueren Batzordeak erabili beharreko irizpide nagusiak.

## **6. artikulua.- Ordaintzeko era**

- 1- Onartutako diru-kopuruari dagozkion fakturak aurkeztu ondoren ordainduko da emandako diru-laguntza.
- 2- Diru-laguntzak jasoko dituztenek jarduerari buruzko memoria laburra ere aurkeztu beharko dute, jarduera egineta gehienez ere hilabeteren buruan: Memoria Fakultateko web-orriko formulario batean beteko da. Hurrengo deialdietako diru-laguntzak ematean kontuan hartuko da aurrekoetan dokumentu hori aurkeztu den ala ez.

## **7. Artikulua. Fakultatearen aipamena**

1. Deialdi honetako diru-laguntzaz finantzatzen diren jarduera guztietan argi eta garbi adierazi beharko da fakultatearen diru-laguntza jaso dela, publizitate edo sustapen-sistema edozein dela ere. Beste erakunderen batek ere eman badu diru-laguntza, fakultatea beste babesleen parean agertu behar da aipatuta, baldintza grafiko eta tipografiko berberetan. Gure fakultatearen identitate-elementuak Dekanotzan eskuratu daitezke (plotter-ak, display-ak, kartelak, eta abar).  
<https://www.ehu.eus/es/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/zabalkundea-eta-komunikazioa2>
2. Dekanoa, edo hark bere ordez izendatuko duen pertsona, jarduerari hasiera eta amaiera emateko ekitaldietara joango da, hala eskatzen bazaio, fakultatearen ordezkaritza moduan.

Leioan, 2023ko abenduaren 21an

Sin.: Terese Mendiguren Galdospin

. Komunikazio eta Gizarte Proiektzioarako Dekanordea

## **ERANSKINA:**

Lehenengo eta behin jarduera hauek lagunduko dira diruz:

- Graduko ikasleei zuzendutako jarduerak
- Ikasleek eskatu eta beren prestakuntzarekin lotutako jarduerak

EZ dira diruz lagunduko:

- Master edota doktoregoko jarduerak
- Ikertaldeen jarduerak
- Irakasleen bilerak antolatzeko edo irakasleak prestatzeko jarduerak
- Liburu, film edo txostenen aurkezpenak
- Itzulpenak
- Lehiaketa motaren bat dagoen jardueretan, deialdi honek ez du diruz ordaindutako saririk emango. Baliteke, agian, deialdiaren bidez, opari korporatiboren bat eskaintzea.

Jarduera bakoitza, gehienez, 300 euroko diru-laguntzaz lagunduko da:

- UPV/EHUK onetsitako kilometrajea. Dena dela, nahiago da garraio publikoa erabiltzea.
- 150 euro, gordingehienez, txosten/parte-hartze bakoitzeko
- Epez kanpo aurkeztutako eskariek 100 euro gordin jaso dezakete gehienez, eta beti ere batzordeak remanentea dagoela konfirmatzen badu bakarrik.

Aurrekontua banatzerakoan ondokoak hartuko dira kontuan:

- Jardueran inplikaturik dagoen fakultateko irakasle-kopurua
- Parte-hartzaileak nondik datozen, ibilbide luzerik beharez duten ekizangodute lehenak
- Jarduera asko izanez gero, saiatuko da graduen artean bidezko banaketa egiten.
- Gehienez 500 euroko, diru-laguntza emango da urteko eta irakasleko
- 1200 euroko, gehienez, urteko eta saileko
- Bi jarduera, gehienez, antolatu ahalko dira irakasgaiko eta irakasleko.
- 900 euro, gehienez, izango dira jarduera berezietarako (biltzarrak eta abar)

- Jardueretan parte-hartzen duen kanpoko pertsona bakoitzari behin bakarrik ordaindu ahalko zaio urtean
- Jardueraren data